

MUSKIZ ALDIZKARIA

/ 16. aldizkaria
2015eko urria



***HAPO**
herritarren
partaidetzara
zabaldu da
berriro ere*

/3. orrialdea

***Orientazio
Juridikoko
zerbitzua,
lehiaketara***

/2. orrialdea

***Umore beltza,
Meatzari
Aretoko antzerki
denboraldian***

/4. orrialdea

***Petronorrek
lursail bat
utzi du hiri-
baratzetarako***

/5. orrialdea

***Karate Kluba,
errespetua,
diziplina eta
ardura***

/6. orrialdea

Editoriala

Konpromisoa, zintzotasuna eta ahalegina

Poztasun handia da niretzat eta nire aldean dudan taldearentzat gure udalerria hobetzen lagunduko duten erabakiak hartzeko eman diguzuen aukera hau edukitzea. Muskizko pertsonen etorkizunagatik eta euren etorkizunerako gaude hemen.

Entzute aktiboari esker, auzotarron lekuan jartzen gara, euren kezkek zein diren jakiteko, erabakiak hartu aurreko tresna gisa. Berehalako erabakiak, ahalik eta beharizan gehien asetzeko asmoz. Hurbiltasunean, partaidetzan eta guztienganako berdintasunezko errespetuan oinarrituta egiten dugu lan.

“Muskizko pertsonen etorkizunagatik eta euren etorkizunerako gaude hemen, hurbiltasunean, partaidetzan eta guztienganako berdintasunezko errespetuan oinarrituta, zeregin honetan lagundu duten pertsona guztien zintzotasunarekin eta konpromisoarekin

Atzera begiratuta, pertsona ugari izan dugu erabaki asko hartzeko eta gure herria ordezkatzeko erantzukizuna, bai Udalaren esparruan bai beste toki eta erakunde publiko batzuetan.

Lerro hauen bitartez, Muskiz egunez egun hobetzeko lagundu duten udal erakundeetan dauden pertsona horien ahalegina, konpromisoa eta zintzotasuna nabarmendu nahi ditut.

Eskerrik asko Guztioi!

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Orientazio Juridikoko zerbitzuaren lizitazioa

Udalak Gizarte Ekintza Saileko Berdintasuna eta Giza Eskubi-deak Arlorako Lege Aholkularitzako zerbitzuaren lizitaziorako baldintza-orrria onartu du, hurrengo bi urteetarako; aholkularitza emakumearen, familiaren eta gizarteratzearen arloari buruzkoa izango da. Ekimena udaleko herritar guztiei zuzenduta badago ere, lehentasuna eman zaie tratatu txarren eta/edo sexu erasoen ondorioz zaugarritasun egoeran dauden emakumei eta kaleratze egoeran daudenei, edozein fasetan daudela ere.

Lanaren, familiaren eta zigorraren alorreko zuzenbidean espezializatutako aholkularitza behar duten eta Gizarte Ekintza Sailak bideratu dituen Muskizko herritarrei zuzenduta dago orientazio juridikoko zerbitzua.

Muskizko Udalbatzaren ustez, beharrezkoa da laguntza hori, izan ere, oinarritzko gizarte zerbitzuak dira arazo juridikoei modu eraginkor eta egokian aurre egiteko herritarren esku jarriko dituzten lehenengo tresnak.

Kirolaren Festako sariak

Ekainaren 25ean, Meatzari Aretoan Muskizko kirolarien eta klubetako ibilbidea saritzeko antolatu zen Kirolaren Festan honako sari hauek banatu ziren:

- Muskiz Saria Kirol Elkarteari: Muskizko Eskubaloia Kluba.
- Muskiz Saria Neska/Emakume Kirolariari: Paula García (Muskiz Eskubaloia).
- Muskiz Saria Mutil/Gizon Kirolariari: Xabier Murias (Mendiz Mendi BTT Kluba).
- Muskiz Kirol Sari Bereziak: L. Miguel Pérez, J. D. Somosrostro eta Muskiz Amaika Futbol Taldea.



- Muskiz Saria Kirol Babesleari: Petronor.



HAPOren aurrerapena herritarren partaidetzara zabalduko da

Udalak herritarren parte-hartzera zabalduko du berriro ere HAPOren prestaketa; izan ere, hainbat saio antolatuko ditu argibideak emateko, bai eta erakusketa bat ere, orain arte bete diren hiru faseak deskribatzeko eta sintetizatzen materialarekin. Gainera, herritarren partaidetzari dagokion udal programa betetzeko helburuarekin, erredakzio taldeak aurrerapenaren eta aurreko bi faseen edukari buruzko informazio saio publiko batean parte hartu du: lurraldearen antolamendurako eta etxebizitzaren erabilerarako tresnei buruzko tresnak.

Beste alde batetik, eta informazioa Muskizko herritar gehienengana iristeko helburuarekin, aurrerapenaren azalpenak irauten duen hilabete zehar eta hiru orduko bi saiotan banatutako bi jardunalditan, HAPOren erredakzio taldeko kideak –Arkitektureta eta Hirigintza Bulegoa S.A enpresako kideak– Kultur Etxean egongo dira, proiektuari buruzko informazio eskaerei erantzuteko eta sor litezkeen zalantzak argitzeko.

Kultur Etxean jarriko dira erakusketaren panelak, hura bukatu eta gero.



Eguneko Zentroko jarduerak

2015eko azken hiruhilekoari ekimen bereziz osatutako egutegiarekin ekingo dio Eguneko Zentroak. Ekimen horien artean, aipagarria da V. Omenaldia Begoñako Amatxuri, Nagusi'15ean parte hartzea eta 25N Orratzen lehiaketa (Muskizko Emakumeen Elkarteak antolatua), bisita Ertzaintzaren bulegoetara, Adinekoen festa eta koadroen erakusketa bat, Eguneko Zentroko aretoetan bertan.



Buruko Gimnasia, Adinekoen Etxean

Adinekoen Udal Etxean Buruko Gimnasia izan da arrakasta handiena izan duen jarduerak. Hori dela eta, udal arduradunak aztertzen ari dira 2015eko azken hiruhilekoan bi talde sortzeko aukerarik dagoen. Psikologiako hitzaldiak, zine-foruma, belaunaldi arteko mendi ibilaldiak eta sukaldaritza espresaren dastatze tailerra dira zentro horretan eskaintzen diren beste jarduerak.

Senide gaixoen zaintzaileentzako laguntza

Zainduz Programaren barruan sartuta dagoen Senide Zaintzaileei Laguntzeko Taldeak urriaren lehen ekin dio berriro ere lanari, eta txandakatu egingo dira gaixoaren arreta garaian laguntza psikologikoa emateko saioak eta Familiaren Estresa Kontrolatzeko tailerra. Bilerak hamabost egunean behin izango dira, eta Muskizko Adinekoen Zentroan izango dira denak, 11:30etik 13:00etara. Estresaren Kontrolerako tailerrak urriaren 15ean, azaroaren 19an eta abenduaren 17an izango dira aurreikusten da.





Urdazubi/Pobeña

Pobeña 1890 VII.aren ediziora gonbidatu dute Urdazubiko Udaltzaria. Edizio honetan, Muskizekin lotzen dituen harreman zaharra gogoratu dute, bertatik iristen baitzitzaizkien burdinoletarako zainak. Berrikuntza nagusia portuko zamatzegunean egindako antzezpena izan da; bertan uzten zituzten idi-gurdiek minerala, eta errentariak kalkulatzeko zituen edukierak, zaintzen zuten mineralaren kalitatea eta ondo begiratzen zuten mineralak ez zezan "ganga" gehiegi eduki.



Umore beltza, Meatzari Aretoko denboraldiaren protagonista

Urriaren 31.etik aurrera (larunbata), Meatzari Aretoko 2015eko Umorearen eta Antzerkiaren denboraldia izango da, umore beltzari eskainia oraingo honetan. Txaloren "Mitad y mitad" lanarekin emango zaio hasiera denboraldiari, hilzorian den baina mundu hau uzten ez duen amaren dirua banatu duten bi anaiei buruzko gogoeta dibertigarriekin. Gonbidatutako bigarren

konpainia Vaivén Producciones izango da, eta "Happy End" lana antzeztuko du. Azaroaren 7an, larunbata, 19:30etik aurrera, Ainhoaren gorabeherak ezagutuko ditugu; bere buruaz beste egiten lagunduko dion elkarte batean eman du izena, baina, susperraldi ekonomikoa dela-eta, elkartean ez da zeregin hori beteko duen parte-hartzailerik.



Nekazari Azoka arrakasta handiarekin amaitu da

Nekazari Azokaren XXXIII. edizioa arrakasta handiarekin amaitu da, bai bisitariei bai erakusketariei dagokienez. Edizio honetan, BBK Fundazioaren egurrezko etxola klasikoetan egon dira berriro ere. Txakolinaren Urrezko Domina Andoni Ojangurenen (Lezama) Erdikoetxerentzat izan da aurten. Bertaratu direnek gauza asko izan dituzte aukeran: gazta, zezina, fruta eta barazkiak, ogia, ezitia, loreak, txokolatetako, euskal pastela, elikagai ekologikoak, saskigintza eta egurra.



Ehizaren eta Arrantzaren Azoka, San Juan plazan

Parte-hartzaile ugari gozatu dute Arraintxori ehiza eta arrantza kirol klubak antolatutako Naturaren IX. Azokaren jarduerekin. San Juan plazak helikoptero baten erreskate bat eta Ertzaintzaren txakur talde bat hartu ditu, bai eta ehiza txakurren eta hegazti harriparien erakustaldiak, tiro modalitateak –arkua, karabina eta tiragomak–, "zigor" modalitateko jaurtiketa lehorrean, heriotzarik gabeko arrantza tailerra eta arrokako arraina eta basurdea doan dastatzeko aukera ere.



Petronorrek lursail bat utzi dio Udalari, baratzeak jartzeko

Uztailaren 8an, Udalak eta Petronorrek hitzarmen bat izenpetu zuten enpresaren jabetzako lursail bat uzteko Udalari, bertan aisiarako baratzeak jartzeko helburuarekin. Lursail bat edukitzeko, ezinbesteko baldintza izango da azken hiru urteetan Muskizen bizi izana, eta lursail horiek edukitzeko interesa dutenek mantenimenduari dagozkion gastuak eta lursailaren ureztatzeari da-

gozkionak hartu beharko dituzte beren gain. Petronorrek utzitako saila 1.512 metro koadrokoa izango da, eta lursailen hartzaileek barazkiak edo frutak landatu beharko dituzte eta ezingo dute beraien lursaila landare-hesien, murruek, hesien edo bestelako eraikuntzen bitartez mugatu. Halaber, ezingo dira gauzak gorde, animaliak eduki edo txokoak eta txabolak eraiki.



Erdi Aroa Muñatonesko gazteluan

Berrogei lagunek hartu dute parte guztira Erdi Aroko bizitza eta kultura berregiteko ekimen honetan: zaldunak, damak, ezkurtariak eta hainbat estamentutako ordezkarriak. Bertaratutakoek arku-tiroa, taldeko borroka-teknikak edo XI. mendetik XV. mendera bitarteko damen eta zaldunen jantziak ikusi ahal izan zituzten, Muñatonesko gazteluaren harresien alboan jarritako kanpaleku batean.



Lanak Kobarongo erdigunean

Kobarongo erdigunea zaharberritzeko lanek proiektuan aurreikusitakoaren arabera jarraitzen dute. Lan horien bitartez, parkearen eta elizaren inguruak berreskuratu eta integratu nahi dira, inguru horren izaera naturala eta eremu publikoa galdu gabe, betiere.



Geltoki kaleko 8. zenbakia eraistea

Joan den irailean, Udalak eraitsi egin du Geltoki kaleko 8. zenbakiko eraikina; izan ere, udal teknikariek orain dela urtebete baino gehiago erortzeko zorian zegoela adierazi zuten. Eraisteko gastuak, 37.000 eurokoak, jabeei jasanarazi zaizkie.



Itsaslurrerako sarrerak egokitzea

Udala Kobaron auzotik Itsaslur parkera sartzeko sarrerak egokitzeko proiektua prestatzen ari da. Inguru horrek 12.500 metro koadroko saila osatzen du, eta orain dela gutxi MacLennan de Minas, S.L. enpresari erosi zaio.



Elkarrizketa

Muskizko Karate Kluba, txapelduna arduran, diziplinan eta errespetuan



“Karatea sakrifizioan, gorputzaren kontrolean eta aurkariarenganako errespetuan oinarritzen da

Full Contact Karate Kluba 1992an sortu zuten, San Joan Bataiatzailea ikastetxeko gimnasioan, ikasteko gogo handia zuten hamar kidek. Gaur egun 60 kirolari biltzen ditu guztira, eta bi modalitatetan lehiatzen dira: karate modernoa eta kumitea. 23 urteko historia horretan, klubak Espainiako eta Euskadiko hainbat txapelketa irabazi ditu, hainbat kategoriatan.

G/ Zein dira gaur egun dituzuen arazo nagusiak?

*E/ Egia esan, ez dugu arazo handirik, zori-
neko kluba gara. Edonola ere, azpimarratu
nahi dugu zenbaitek aurreiritziak dituzte-
la, borroka-arteak ezagutzen ez dituztenek
bereziki, eta, haien ustez, karatea eta kirol
horretan jarduten dutenak oldarkorrek eta
zakarrak dira.*

**G/ Eta nola baztertu liteke oldarkorta-
sunaren mito hori?**

*E/ Azpimarratu nahi dugu borroka-arteek,
karateak kasu honetan, sakrifizioan, nor-
beraren eta aurkariaren gorputzaren eza-
gutzan eta aurkariarenganako errespetuan
oinarritutako bizitza filosofia dakarrela be-
rarekin. Filosofia hori gaztetxoenei zein hel-
duei irakatsi nahi izaten diegu, eta behin eta
berriro adierazten diegu ikasitako teknikak
tatamiaren barruan baino ez direla erabil-
tzen, kirolaren esparruan, alegia.*

**G/ Adierazi ezazu zer onura ekartzen di-
tuen karateak.**

*E/ Pertsonarenganako eta aurkariarenganako
errespetuan, sakrifizioan, gorputzaren zein emo-
zioen kontrolean, bizitza estilo osasungarrian,
arduran, diziplinan eta irtotasunean oinarritu-*

*tako doktrina bati jarraitzen diogu. Hori guztia
dela eta, gaztetatik karatearen antzeko kirol bat
egitea onuragarria da, haurrak, aisialdian goza-
tzeaz gainera, bere eguneroko bizitzan aplikatu
ahal izango dituen balioak ikasiko dituelako.*

**G/ Zein izan dira aurreko denboraldiko
lorpen nagusiak? Eta zein dira ikasturte
honetarako helburu nagusiak?**

*E/ 2015ean Espainiako txapeldunorde bat
izan dugu karate modernoan, lehenengo eta
hirugarren sailkatu gara iparraldeko txape-
lketan modalitate horretan bertan, eta txapel-
dun bat baino gehiago izan ditugu Bizkaiko
Haurren Ligan, bai karate modernoan bai ku-
mite modalitatetan. Aurten, hobetu egin nahi
ditugu emaitza horiek. Edo, gutxienez, maila
horretan bertan jarraitu nahi dugu, eta gure
klubaren izena gero eta ezagunagoa izatea.*



Udal kiroldegia- ren kudeaketa lehiaketara atera da

Udalak lehiaketara atera du udal kiroldegia-
ren kudeaketa, gaur egungo adjudikazioaren epea amaituta. Udalaren helburu nagusia
zerbitzuaren kalitateari eustea da, egiten ari diren jarduerak mu-
rriztu gabe, baina udal kutxarako aurrezkiak bilatuz.

Euskararen Nazioarteko Eguna Muskizen

Abenduaren 3an Eus-
kararen Nazioarteko
Eguna izango da, eta
Muskizko Udalak
egun hori baliatu nahi
du euskararen erabi-
lera sustatzeko. Aur-
ten, egun horretan
ekitaldi hauek izango
dira: Pirritx, Porrotx
eta Marimotots; Be-
nito Lertxundik Oro-
imenaren Oraina kont-
zertua eskainiko du;
eta, horrez gainera, hauren-
tzako jokoak, kirol erakus-
taldiak, ipuin-kontalariak,
mendiko ibilaldiak... eta abar
izango dira.



Ospakizun horretarako, Uda-
lak Muskizko taldeekin eta
elkarteeekin jardungo du, aha-
lik eta agendarik erakargarrie-
na antolatzeke helburuarekin.